



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko ekainaren 9ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko ekainaren 9an, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : GOICOECHEA Iñaki.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : JORAJURIA Ramuntxo.

Deialdiaren eguna : 2023ko ekainaren 2a

Afitzatze eguna : 2023ko ekainaren 2a

## 6. ERABAKIA: MEDIKUNTZA BASAMORTUEN KONTRAKO SOSTENGU MOZIO BATEN ONARTZEA

(9.4 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio medikuntza basamortuen kontrako neurri ausarten sostengatzeko mozio baten onartzea.

Frantses estatuan 8 milioi biztanle medikuntza basamortuan bizi dira.

Frantses estatuan, familia mediku gehien dituen departamenduak gutxien dituenak baino hiru aldiz gehiago ditu mediku horiek. Tarte hori handiagoa da berezituentzat: dentistentzat 4, oftalmologoentzat 18, dermatologoentzat 23 eta pediatrentzat 33.

Medikuntza basamortuak garatu ahala, berdintasunak gibel egiten du.

Gaur egun, tokiko erakundeen mobilizazioak izanik ere, ezein politika publikok ez dio medikuntza basamortuen arazoari erantzun iraunkorrik eman. Akuilatze neurriak garestiak dira, ez aski eraginkorrak, eta batzuetan lurraldeen arteko lehia sustatzen dute, lurraldeen kaltetan.

Larrialdi egoera horren aurrean, sekula baino ezinbestekoa da aukera guztiak ikertzea.

Iragan urtarrilean, Frantziako legebiltzarreko 200 bat diputatuk alderdiez gaindiko lege proposamena aurkeztu zuten, medikuen instalazioa erregulatzeko xedea duena, medikuak hobeki banatuak izan daitezen, jadanik farmazia, emagin, kine eta erizain autonomoentzat egiten den bezala. Gainera, lege proposamenak medikuntza ikasketetarako sarbidea

demokratizatzeko eta arten burutzea hobetzeko proposamenak egiten ditu, biztanle orok familia medikua, espezialista eta dentista etxetik hurbil ukan ditzan.

Herritarrentzat eta lurraldeentzat ezinbestekoa da Frantziako legebiltzarrean funtsezko gai horretaz eztabaidatzea.

Auzapezak mozio horren aurkezpena egin-eta, eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak:

**AGIANTZA EGITEN DU**, lege proposamena Frantziako Legebiltzarreko solaisgaietan txertatua izan dadin, eta eztabaidak haren bozkatzea ahalbidetuko duela ahal bezain laster.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko ekainaren 9an

Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/06/16an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/06/16an.